

Temas

Actividad física.

Descripción

4 ibilbide izan dira azkenean diseinatutakoak:

Ibilbide errazak

1) Alegia – Uribar bide berdea: Alegiatik Uribar aldera doan bide berdea, asfaltatua eta itzalez, eserlekuz eta iturriz hornitua dago, denontzat egokituia, edozein mugikortasun egoera dela ere. Zuhaitzez jantzitako Santa Lutzi edo Argixao izeneko ibai ertza du alde batean; bertan, Alegiako errotara zetorren kanalaren eta presa izandakoaren aztarnak ikusgai daude. Bestean, alderik alde Madurako zelai zabalek ematen duten primerako ikuspegia. Behin Epelde erreka zeharkatuz gero, XV. mendeko ondare artistiko-historikoa den Uribar baserri-dolarearen altxorra aurrez aurre topatuko duzu.

Hau da ibilbidearen

track-a: <https://es.wikiloc.com/rutas-senderismo/alegia-uribar-29692345>

Bertan ikusi daitekeen bezala, 1,86km luzerako ibilbidea da eta 15 metroko gorabehera metatua du.

2) Itsaso – San Lorentzo bide berdea: Itsasotik San

Lorentzo baselizara doan bide lauak 45 minutuz joan-etorria egiteko aukera eskaintzen dizu. San Lorentzon bertan iturri, eserleku eta mahaiekin aisialdi gune batez ere goza daiteke eta ermitak duen interes historikoa eta artistikoa ezagutu.

Hau da ibilbidearen

track-a: <https://es.wikiloc.com/rutas-senderismo/itsaso-san-lorentzo-29692351>

2,37 kilometro luzerako

ibilbidea da eta 30 metroko gorabehera metatua du. Basoan barnean doan bidea da itzalez inguratuta, aurrekoa baina zailtasun pixkat gehiago izango du, nahiz eta oso laua izan, oinetako aldetik eta bidearen zorura egokituta ibili beharko litzateke.

Ertain mailako zailtasuneko ibilbideak

1) Itsaso - Kizkitza – Mandubia ibilbide zirkularra
Itsasotik Kizkitzara zuzenean igo nahi baduzu, Altzigarragako bidegurutzera iritsiko zara lehenbizi. Beheraxeago iturria ere bada. Behin Kizkitzan bertako ermita, itsasargi eta pagadiak gozatuta, Arrobiatik jaits zaitezke, hurbil duen iturria baliatuz, Mandubizelaiko trikuharriaren gunea bisitatu eta Mandubiko Bentara.

Itzulera, berriz, Donostia-Arantzazu GR-34 eta Done Jakue Bidearekin bat egin dezakezu lehenik, hainbat puntu historiko esanguratsu igaroz: Iminarriko bidegurutzera, XVI. mendeko Mendeun baserri-ondarea eta Arrobizabal mendigainetik Urteagaraino (hau ere XVI. mendeko zurezko ondare arkitektonikoa). Zirkuitua ixteko, Arrobizabalgo bidegurutzetik Itsasorantz hartu (garai bateko Itsaso-Arriaran herribidea) eta Miraballesetik Aizkorriko ikuspegirik ederrena behatuz Itsasoko gunera helduko zara.

Ibilaldi honen hasiera eta amaiera puntua nahieran aukera dezakezu: Itsaso, Mandubia nahiz Urteaga, eta baita nahi duzun zatia egin ere.

Hau da bere track-a: <https://es.wikiloc.com/rutas-senderismo/itsaso-kizkitza-mandubia-zirkularra-30644677>

Honek, 8,44 km luzera dauka eta 696 metroko gorabehera metatua.

2) Itsaso – Alegia ibilbide zirkularra: Mendeetan zehar Itsasoko Alegia auzoa eta Itsasoko gunea bi herribidek lotu zituen, 1934ean errepidea egin zen arte. Zirkuitu honekin lehengo bide garrantzitsu haiek errekueratu eta ibilbide zirkularra proposatzen dizugu. Nahi den norabidetan, abiapuntua Itsaso zein Alegia izan liteke.

Bi guneez eskaintzen dituzten interesgune aberatsez gain, bidean zehar hainbat elementu beha ditzakezu. Itsasotik behera, urrenez urren, Egiluzeazpiko mandio-zubia, Epelde inguruan karobia, ur sulfatatuaren Urbeltza izeneko sorlekua eta beheraxeago zubia. Jada Alegiako Maduran, zelai bikainak eta ibaian presa eta errotara zihon kanalaren arrastoak. Alegiatik Itsasorako igoeran, Iburhipika, Okinarriko ur putzuak eta XVI. Mendeko Sarriegiko ondare aparta.

Hau da bere track-a: <https://es.wikiloc.com/rutas-senderismo/itsaso-alegi-zirkularra-29507792>

Honek, 5,88 kilometroko luzera eta 482 metroko gorabehera metatua du.

Contacto

943477790 - udala@itsaso.eus

Fecha de última actualización del recurso

14/03/2019

Situación actual del recurso

Activa

Localización

Calle Itsaso hirigunea 12 20709 Itsaso Ezkio-Itsaso Gipuzkoa Euskadi España
Calle Alegi auzoa 1 20709 Itsaso Alegi auzoa Ezkio-Itsaso Gipuzkoa Euskadi España



Página web del proyecto

<http://www.itsaso.eus>

https://twitter.com/itsasoko_udala?lang=es

Imagen del Recurso

